

uztarria.eus /azpeitia/1664293658956-jaso-du-gladys-saria-olatz-perez-de-vinasprek

Jaso du Gladys saria Olatz Perez de Viñasprek

moiarzabal@ukt.eus : : 27/09/2022



Olatz Perez de Viñaspre, erdian, Gladys sariarekin, ekitaldiaren amaieran antolatzaileekin ateratako argazkian. (Gipuzkoako Foru Aldundia)

Puntueusek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta EHUren Informatika Fakultateak emakume informatikari euskaldunen lana balioesteko banatzen dute saria. Azpeitiko bizilagunari eman diote aurtengoa, gaur, Donostian.

Bigarren aldiz eman dute Gladys saria Puntueusek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta EHUren Informatika Fakultateak, eta [Olatz Perez de Viñaspre](#) Azpeitiko bizilaguna izan da aurten aitortza jaso duena. Gaur egin dute sari banaketa ekitaldia Donostian, EHUren Informatika Fakultatean.

Emakume informatikari euskaldunen lana balioestea eta ikusaraztea da Gladys sariaren helburu nagusia. 20 hautagaiko zerrendatik aukeratu dute Perez de Viñaspre; "teknologian generoa eta euskara aldarrikatzeko hark eginiko lana txalotu" du epaimahaiak.

[gizartea Azpeitia](#)

Erlazionatuak



[Olatz Perez de Viñaspre: "Ezin dugu gizonen esku bakarrik utzi informatikaren mundua, emakumeak ere beharrezkoak gara"](#)

Ihintza Elustondo ira 15 [gizartea](#)

Olatz Perez de Viñaspreri emango diote ingurune digitalean ari diren emakumeen lana aitortzea helburu duen II. Gladys saria. Informatikan in...

Erantzuteko, izena emanda egon behar duzu eta horretarako baimenak eduki behar dituzu. [Sartu komunitatera!](#)